

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2016

GOBERNANTZA PUBLIKOA ETA AUTOGOBERNUA

1. ELKARLAN sariak 2
2. “Open Data Euskadi” sariak 3



1.- Izenburua

ELKARLAN sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2016ko irailaren 20koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren «Elkarlan» sariak emateko bigarren deialdia, 2016koa, onesten duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Herritar antolatuek, erakundeen laguntzarekin edo gabe, sortutako balio publikoaren aintzatespena eta ezagutarazpena, Euskadiko demokraziari eta herritarren parte-hartzeari buruzko Liburu Zuriaren konpromiso gisa.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

59 proiektu aurkeztu dira 2015. urtean eta 49 proiektu berri aurkeztu dira 2016.enean saria lortzeko hautagai. Deialdiak harrera aparta izan du eta aukera eman du, gardentasunaren web-orrian argitaratzearekin, osasuna, kohesio soziala, ingurumena, ikasketa-kultura eta garapen ekonomikoaren arloetan EAEko herritarren jarduera eta horiek duten eraberritze-maila ezagutarazteko, baita, batez ere, erakundeen aintzatespena lortzeko ere.



1.- Izenburua

“Open Data Euskadi” sariak

2.- Araua

AGINDUA, 2015eko urriaren 21ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko proiektu onenak saritzeko deialdia onartzen duena.

AGINDUA, 2015eko urriaren 21ekoa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko ideiarik onenen sarietarako deialdia onartzen duena.

3.- Diru-laguntza Programaren azalpen laburra eta helburuak

Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko ideien lehiaketarako dei egiten da Open Data Euskadi webgunearen berri emateko eta haren katalogoaren potentziala erakusteko, datu irekien erabilera eta horietatik eratorritako zerbitzuen sorrera sustatzeko, bai eta datuok berrerabiltzen eta kontsumitzen dituzten pertsonen kolektiboek gehien eskatzen dituztenak zehazteko, datu horiek irekitzeko ahalegin handiagoa egiteko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Funtzio Publikoko sailburuordeak, 2016ko urtarrilaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko ideiarik onenen sariak emateko ebazpena sinatu zuen. Guztira, 33 izangai aurkeztu ziren eta honako hauek izan ziren sarituak:

Saritutako 2 proiektuak hauek izan ziren:

- “Open ispilu”, ispilu arrunta seinaleztapen digitalerako tresna bihurtzen du, eta aukera ematen du open data motako informazio adierazgarria eskaintzeko eguraldiari, ekitaldiei edo albisteei buruz, besteak beste.
- “Servirace, Runner-en gida”, kirol-lasterketa baten kokapenetik gertu dauden zerbitzuen (hotelak, jatetxeak, etab.) gaineko informazioa ematen du. Datu interesgarriak eskaintzen ditu lasterketa horietan parte hartzen dutenentzat.

Funtzio Publikoko sailburuordeak, 2016ko urtarrilaren 28an, Eusko Jaurlaritzaren datu irekiak berrerabiltzeko proiekturik onenen sariak emateko ebazpena sinatu zuen. Guztira, 17 izangai aurkeztu ziren eta honako hauek izan ziren sarituak:

- “Hautatu etorkizun oneko ikasketak”, Gazteei ikasketak hautatzen laguntzeko informazioa eskainiko dien webgunerako/mugikorretarako aplikazioa sortzea proposatzen du.
- “iBILI-Lizitazioen bilatzaile adimenduna”. Teknika matematiko berritzaileak aplikatuko lituzke lizitazio publikoei buruzko informazio adierazgarriena bilatu, aztertu eta bistaratzeko. Gainera, gomendioak ere egingo lizkioke ETEei eta startupeei.